

**I. XEDAPEN OROKORRAK****ESTATUKO BURUZAGITZA**

- 17266** *38/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 29koa, zeinaren bidez egokitzapen neurriak hartzen baitira Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua hirugarren estatu izango delako Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua Europar Batasunetik eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegotik ateratzeari buruzko 2020ko urtarrilaren 31ko Akordioan aurreikusitako trantsizio-aldia amaitu ondoren.*

I

Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak (aurrerantzean, «Erresuma Batua») Europar Batasuneko estatu izateari utzi zion, eta hirugarren herrialdeztat jotzen da 2020ko urtarrilaren 31z geroztik, Erresuma Batua Europar Batasunetik eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegotik Irteteari buruzko Akordioa berretsi ondoren (aurrerantzean, «Irteteko Akordioa»).

Hurrengo egunean jarri zen indarrean Irteteko Akordioa. Haren helburu nagusia da Erresuma Batua era ordenatuan irteten dela bermatzea eta segurtasun juridikoa ematea Europar Batasuneko eta Erresuma Batuko herritarrei, eragile ekonomikoek eta administrazioek. Irteteko Akordioak babesa ematen die beren eskubideak Europar Batasuneko ordenamendu juridikoaren babesean 2020ko abenduaren 31 baino lehen baliatu dituzten Europar Batasuneko herritarrei eta Erresuma Batuko nazionalitatea dutenei; hiru protokolo jasotzen ditu, Gibraltari, Irlanda eta Ipar Irlandari eta Zipreko subiranotasun-eremuak buruz xedapen espezifikoa dituztenak.

Irteteko Akordioan, epe iragankor bat aurreikusten zen, indarrean jartzen zen unetik 2020ko abenduaren 31ra artekoa, eta epe horretan ere, zenbait salbuespenekin, Europar Batasuneko Zuzenbidea aplikatu da Erresuma Batuan, eta hura aplikatu zaio Erresuma Batuari ere. Herritarrek, eragile ekonomikoak eta administrazioak egoera berrira egokitzeko epe bat eskaintzea zen helburu nagusia, eta egonkortasun-esparru bat eskaintzea Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko etorkizuneko harremanari buruzko akordio bat negoziatzeko.

Akordiorako negoziazioak 2020ko martxoaren 2an hasi ziren formalki, eta abenduaren 24an amaitu, konpromisoak lortuta merkataritzako eta lankidetzako akordio baten, informazioaren segurtasunari buruzko akordio baten eta energia nuklearraren erabilera baketsuei buruzko Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko lankidetzari buruzko akordio baten gainean.

Negoziazioak hasi zirenetik, haien emaitzaren gaineko ziurgabetasuna eta Erresuma Batua hirugarren estatu bihurtu izanak dakarren funtsezko aldaketa direla eta, Europako Kontseiluak Batzordeari eta Batasuneko estatuei behin baino gehiagotan adierazi zien bermatu beharra zegoela behar bezala prestatzen zirela Erresuma Batua irteteak eremu guztietan izango zituen ondorioetarako eta gerta zitezkeen egoera guztietarako.

Batzordeak komunikazio bat aurkeztu zuen trantsizio-aldiaren amaierarako prestaketei buruz 2020ko uztailaren 9an, eta lauorogei prestaketa-jakinazpen baino gehiago argitaratu ditu, askotariko gaiak buruz. Horietan guztietan, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aldatuko diren gaiez jardun du Batzordeak.

Komunikazio horietan, Batzordeak enpresei, herritarrei eta Batasuneko estatuei eskatu die haiek ere presta daitezela, zeinek bere eskumen eta erantzukizunen esparruan, Irteteko Akordioan aurreikusitako trantsizio-aldia amaitzeak ezinbestean ekarriko dituen ondorioek aurre egiteko. Haren ondoren, Erresuma Batuak ez du parte hartuko Europar Batasuneko merkatu bakarrean eta aduana-batasunean, ez eta Batasunaren politika eta programetan ere, eta Batasunaren nazioarteko akordioen onuradun izateari utziko dio.

Europar Batasunaren esparruan, era berean, kontingentzia-erregelamenduak onartu dira aireko garraioari, trenbideko garraioari, errepideko garraioari eta arrantzari buruz, badaezpada ere, trantsizio-aldia akordiorik lortu gabe amaitzen bada ere Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko etorkizuneko harremanari buruz urtarrilaren 1ean indarrean jartzeko; kontua da akordiorik ezean Europar Batasunaren interesei kalte larriak eragingo lizkiekeen gorabeherarik ez izatea.

## II

Erresuma Batuak Europar Batasunetik irteteko erabakia jakinarazi zuen unetik, Gobernuak ministerioen arteko eta lurralde-administrazioekiko koordinaziorako sistema bat ezarri zuen Brexitari buruz informazioa emateko eta lan egiteko, Erresuma Batua Europar Batasunetik Irteteko Prozesuaren Jarraipenerako Ministerioarteko Batzordearen eta haren mendeko lantaldeen bitartez.

Horretarako araugintza-arloan egindako lanen emaitza gisa, gobernuak martxoaren 1eko 5/2019 Errege Lege Dekretua onetsi zuen 2019an bertan; haren bidez, kontingentzia-neurriak hartu ziren Britainia Handiaren eta Ipar Irlandaren Erresuma Batua Europar Batasunaren Tratatuak 50. artikuluan jasotako akordioa lortu gabe irteten bazen ere Europar Batasunetik.

Haren azken xedapenetako seigarrenean ezartzen zenaren arabera, Europar Batasunaren Tratatuaren 50.3 artikuluekin bat etorriz Europar Batasunaren tratatuak Erresuma Batuari aplikatzeari uzten zitzaion egunean jartzekoa zen indarrean errege lege-dekretua. Dena den, Erresuma Batuen eta Europar Batasunaren artean hasitako negoziazioen esparruan, aurreikusten zen, halaber, ez zela indarrean jarriko baldin eta data hori baino lehenago Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen artean Europar Batasunaren Tratatuaren 50.2 artikuluen arabera formalizatutako irteteko akordio bat indarrean jartzen bazen; eta, azkenean hala gertatu zenez, ez zen inoiz jarri indarrean arau hori, zeina 2019ko martxoaren 2ko BOEn argitaratu baitzen.

Horregatik, Irteteko Akordioa indarrean jarri zenetik, lanak egiten jardun da trantsizio-aldiaren amaiera prestatzeko. Azken hilabeteotan, gainera, areagotu egin dira trantsizio-aldia Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko etorkizuneko harremanari buruzko akordiorik gabe amaitzen den egoera baterako prestaketa-lanak.

Autonomia-erkidegoei kontsulta egin zaie Europar Batasunarekin lotutako Gaietarako Konferentziaren bidez, eta administrazioen arteko koordinaziorako sistema bat sortu da, puntu fokalez osatua, informazio-trukea errazte aldera.

Gobernuak, egokitze-neurrien planaren bidez, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteak eragindako ondorio txarretako batzuk minimizatu nahi ditu, alde bakarretik eta aldi baterako, eremu mugatuetan. Horretarako, hiru jarduketa-ildo antolatu dira: araugintzakoa, logistikoa eta komunikazio-arlokoa.

## III

Araugintzako jarduketei dagokienez, eta Europako Batzordearekiko komunikazioetan jasotako orientabideen arabera, maila guztietako egokitze-neurriek printzipio batzuk bete behar dituzte.

Aldi baterako izan behar dute; sektoretik sektorera alda daitezke epeak. Errespetatu egin behar dute tratatuak ezarritako eskumen-banaketa, eta Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarriak izan behar dute.

Jarraitze horien esparruan, trantsizio-aldia amaitzeak eta Erresuma Batua ondorio guztietarako hirugarren estatu bat izateak eragiten dien herritarren eta eragile ekonomikoen interesak babesteko dira errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak.

Trantsizio-aldia amaitzearen ondorio kaltegarriari aurre egin nahi zaie neurri horiekin, ahal den neurrian eta ezinbestekotzat jotzen diren Estatuaren eskumeneko eremuetan.

Dena den, nabarmendu beharrekoa da aldi baterako arauak direla eta indarrean egoteari utziko diotela kasu bakoitzean adierazten den epea amaitzen denean, edo

lehenago, baldin eta arau honetan jasotako gaietan Erresuma Batuarekiko harremanak modu iraunkorrean arautzeko tresnak onartzen badira, barnekoak zein nazioartekoak.

Horrez gain, hala ezartzen denetan, errege lege-dekretuak arautzen dituen egoera juridikoek denboran irauteko, Erresuma Batuko agintariek ere pareko tratamendua eman beharko dute. Elkarrekikotasunaren baldintza hori bete beharko da, ezinbestean, errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta gero, berariaz horretarako antolatzen diren mekanismoen bitartez.

## IV

I. kapituluak, «Xedapen orokorrak» izenekoak, alderdi hauek arautzen ditu: arauaren xedea, aplikatu beharreko araudia eta ezarritako neurrien iragankortasuna, halakorik ezarri bada, bai eta neurri batzuetarako eska daitekeen elkarrekikotasun-mekanismoa ere. Neurrien indarraldia luzatzeko aukera ematen da, gainera.

Ildo horretan, aurreikusten da, alde batetik, indarraldi mugatua duten neurriek indarrean egoteari utziko diotela berez indarraldi hori amaitzen denean, salbu eta Gobernuak hura luzatzen badu. Bestetik, errege lege-dekretuan arautzen diren neurrietako batzuk, indarrean jartzen direnetik bi hilabeteko epea gutxienez igarotakoan, Gobernuak eten egingo ditu, baldin eta britainiar agintari eskudunek ez badiete pareko tratamendua ematen, ukitutako arlo guztietan, Espainiako nazionalitatea duten pertsona fisiko edo juridikoei.

II. kapituluak «lanbide- eta lan-harremanei» aplikatu beharreko arauak ezartzen ditu, eta bost ataletan dago banatuta. 1. atalak («Lanbideak eta funtzio publikoa») Erresuma Batuko nazionalitatea dutenen lanbideratzea eta lanbide-jarduera arautzen ditu, eta Espainiako administrazio publikoetako enplegatu publiko bihurtzeko eta halakoak izaten jarraitzeko aplikatuko zaizkien arauak ezartzen ditu.

4. artikulua lanbide-kualifikazioak lortu diren edo lortu nahi diren lanbideetan sartzearekin eta jardutearekin lotutako zenbait egoera jorratzen ditu, eta, kasu gehienetan, elkarrekikotasun-printzipioaren mende ipintzen du ezartzen duen araubidea.

Artikulu horretan arautzen da zer araubide zaien aplikagarri lanbide edo jarduera profesional batean modu iraunkorrean jarduten duten Erresuma Batuko nazionalitatea dutenei baldin eta lanbide edo jarduera horietan sartzeko eta jarduteko Batasuneko estatu bateko nazionalitatea izatea eskatzen bada. Era berean, lanbide jakin batzuetan jarduteko gaitasun-probetan nazionalitatearen dispentsaren izapidea bete beharrik izan gabe parte hartzeko duten eskubidea arautzen da; eskubide hori izateko, betiere, 2020a amaitu baino lehenagokoa izan behar du gaitasun-proben deialdiak.

Artikulu horrek luzatu egiten die indarrean dagoen araubide juridikoaren aplikazio-aldia Erresuma Batuan edo Batasuneko beste zeinahi estatutan lortutako lanbide-kualifikazioak aitortzeko Erresuma Batuko nazionalitatea dutenek Espainiako agintariei errege lege-dekretu hau indarrean jarri baino lehen edo hurrengo bost urteetan aurkezten dituzten eskaerei; horretarako, betiere, kualifikazioa lortzeko ikasketak edo jarduerak hasia 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen onartu behar izan da.

Beste horrenbeste ezartzen da espainiarrek edo Batasuneko beste estatu bateko nazionalitatea dutenek Erresuma Batuan lortutako lanbide-kualifikazioak aitortzeko eskaerarako, errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik edo hurrengo bost urteetan Espainiako agintariei halakoak aurkezten dizkietenerako; hori aplikatzeko, betiere, kualifikazioa lortzeko ikasketak edo jarduerak hasia 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen onartu behar izan da.

Manu horretan ezartzen da, halaber, zer araubide aplikatuko zaien aitorten automatikoko prestakuntza-tituluei, Espainian aldi baterako edo behin-behinean lanbide batean edo lanbide-jarduera batean ari direnei, profesionalen sozietatei eta Kontuen Auditoretzaren Erregistro Ofizialean inskribatutako kontu-auditore eta auditoretza-sozietatei.

Erresuma Batuko nazionalitatea duten enplegatu publikoen egoeraz dihardu 5. artikulua, eta britainiarrek funtzio publikoan sartzeko hautapen-prozesuetan parte hartzeko izango dituzten aukerez.

2. atalak, «Lan-harremanak» izenekoak, bi artikulua ditu: bata, zerbitzu-prestazio baten esparruan aldi baterako lekualdatutako langileei aplikatu beharreko araubide iragankorrari buruzkoa, eta bestea, Europako Erkidegoan hedatutako enpresetako edo enpresa-taldeetako Europako enpresa-batzordeei buruzkoa.

Langileen lekualdatzeari dagokionez, kontuan hartu behar da langileen lekualdatzeari buruzko Europar Batasuneko araudiak —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1996ko abenduaren 16ko 96/71/EE Zuzentaraua, zerbitzuak emateko esparruan langileak lekualdatzeari buruzkoa— arindu egiten dituela Europar Batasuneko enpresek Batasuneko beste estatu batzuetara lekualdatu diren langileen bitartez zerbitzuak emateko askatasunak lehia askean (dumping soziala) eta langileen eskubideen babesean izan ditzakeen nahi gabeko ondorioak.

Araudi horrek, beraz, herrialdeen arteko zerbitzu-emate aske hori dagoenean soilik du zentzua, eta, normalean, merkataritza-akordio aldeaniztunen edo aldebikoen esparruan onartzen da askatasun hori.

Ildo horretan, langileak lekualdatzeari buruzko Europako Batzordearen 2020ko urriaren 6ko prestaketa-dokumentuak ezartzen duenez, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, Europar Batasuneko edo Erresuma Batuko lurraldera lekualdatuta zeuden Erresuma Batuko edo Europar Batasuneko enpresetako langileak, hurrenez hurren, 1996ko abenduaren 16ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 96/71/EE Zuzentaruaren aplikazio-eremutik aterako dira.

Hau da, trantsizio-aldia amaitu ondoren, zerbitzuak ematen jarraitzeko eskubidea, Erresuma Batura lekualdatutako langileentzat, Erresuma Batuko legeria nazionalaren mende egongo da; eta Europar Batasunera lekualdatutako langileentzat, berriz, Europar Batasuneko legeriaren eta Europar Batasuneko estatuetako zuzenbide nazionalaren mende. Oro har, lekualdatutako langileak ez dira izango Irteteko Akordioaren onuradun.

Ildo horretan, Erresuma Batuan ezarritako enpresa batek 2020ko abenduaren 31 baino lehen Espainiara lekualdatutako langileek, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, Espainian jarraitu ahal izango dute, eta zerbitzuak ematen jarraitu, Espainian bizilekua izateko eta lan egiteko alde aurreko baimenik lortu gabe, errege lege-dekretu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta Erresuma Batuak antzeko tratamendua ematen badie Espainian finkatutako enpresek Erresuma Batura lekualdatutako langileei. Hala ere, hasieran aurreikusitako eta lan-agintaritzari jakinarazitako lekualdatzearen iraupena luzatu behar bada, dagokion bizileku- eta lan-baimena eskatu beharko da, enpleguaren egoera nazional delakoa aplikatu gabe. Ez da beharrezkoa izango bisa lortzea, ordea.

Erresuma Batuan kokatutako enpresetako langileek, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera Espainiara lekualdatzen badira, berriz, Espainiako atzeritartasun-arloko araudian aurreikusitako nahitaezko bisak edo bizileku- eta lan-baimenak lortu beharko dituzte, baina merkataritza-arloan akordioaren bat egiten bada, bete egin beharko dira, betiere, haren esparruan hartutako konpromisoak.

Europako enpresa-batzordeei dagokienez, hona zer dioen Europako Batzordearen 2020ko apirilaren 21eko Jakinarazpenak («*Notice to stakeholders withdrawal of the United Kingdom and EU rules on European Works Councils*»): «Trantsizio-aldia amaitutakoan, Erresuma Batuari ez zaizkio aplikatutako langileei informazioa emateko eta kontsultak egiteko 2009/38/EE Zuzentaruaren ezartzen diren nazioz harandiko arauak». «Ondorioz, behar diren atalaseak betetzen ez badira trantsizio-aldiaren amaieran, Europako enpresa-batzordeak, ezarrita badaude ere, aurrerantzean ez dira egongo 2009/38/EE Zuzentaruaren aplikatzearen ondoriozko eskubide eta betebeharren mende. Enpresa-batzorde horiek lanean jarraitu ahal izango dute, dagokien legeria nazionalaren mende».

3. atalak artikulua bakarra dauka, 8.a, eta ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak egiteari buruzkoa da. Haren arabera, 2020ko abenduaren 31n Espainian jarduera horietan diharduten Erresuma Batuko nazionalitatekoek aitortuak dituzten baldintza berberetan jarraitu ahal izango dute jarduera horietan, eta indarrean dagoen Espainiako legeria

aplikatuko zaie. Hori aplikatzeko, Britainia Handiko agintaritzak eskudunek ere pareko tratamendua aitortu beharko diete Espainiako nazionalitatea dutenei.

4. atalak, «Gizarte Segurantzak» izenekoak, artikulua bakarrik du, 9.a. Horretan, Erresuma Batua Europar Batasunetik irten aurretik ezarritako baldintza berberetan aplikatu beharreko legeria zehazteko arauak biltzen ditu. Horren bidez, Espainiak gero ere arau horiek berak aplikatu ahal izango dizkie Britainia Handiko gizarte-segurantzako legeriari lotutako pertsonen, baldin eta Erresuma Batuak modu berean jarduten badu Espainiako gizarte-segurantzako legeriari lotutako pertsonekin.

5. atalean, 10. artikuluan, neurriak arautzen dira Erresuma Batuko nazionalitatea dutenek 2020ko abenduaren 31ra arte (trantsizio-aldia amaitu arte) kotizatutako aldiengatik langabezia-prestazioak eskuratu ahal izateko; aldi horiek Europar Batasuneko edozein estatutan kotizatuak izan daitezke, Erresuma Batuan kotizatutako aldiak barne, baina, betiere, azken kotizazioak Espainian eginak behar dira izan, eta legezko bizilekua Espainian izateko eskubideari eutsi behar zaio.

Artikulu horretan jasotako neurrien helburuetako bat da, halaber, Europar Batasuneko nazionalitatea dutenek trantsizio-aldia amaitu baino lehen Erresuma Batuan kotizatutako aldiengatik langabeziako prestazioak eskuratu ahal izatea, baldin eta Espainian egin badituzte azken kotizazioak.

10. artikulua horren 3. apartatuan, berriz, berriazko neurri bat sartu da, Gibraltarrera egunero lanera joaten diren mugako langileek langabezia-prestazioen arloko eskubideak izaten jarrai dezaten. Langile horiek 2022ko abenduaren 31ra arte eskuratu ahal izango dituzte prestazio horiek, neurri horretan adierazitako baldintzetan.

Neurri hori justifikatzen da, batetik, Campo de Gibraltar eskualdean langabezia-tasa handia dagoelako, eta, bestetik, mugako langileak, Irteteko Akordioak estaltzen ez dituenek, babesik gabe gera daitezkeelako koordinaziorako Batasuneko erregelamenduak aplikatzeari uzten zaionean. Neurri hori elkarrekikotasun-baldintzarik gabe aplikatuko litzateke, Campo de Gibraltar eskualdeko mugako langileen kasuan dauden berezitasunengatik.

Hirugarren kapituluak, alde batetik, 11. artikuluan, nazioarteko berriazko tresna bilateral edo multilateralik ezean osasun-laguntza emateko aplikatu behar diren arauak jasotzen ditu. Arau horiek bi printzipio dituzte oinarri: jarraitutasuna eta elkarrekikotasuna.

Hala, bada, espresuki aurreikusten da ezen, errege lege-dekretua indarrean jartzen denetik 2021eko ekainaren 30era arte, Espainiak osasun-laguntza ematen jarraituko duela, 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagoko modu berean eta baldintza berekin, baldin eta Erresuma Batuak beste horrenbeste bermatzen badie Espainiaren kargura osasun-laguntza jasotzeko eskubidea duten pertsonen.

Orobat, osasun-laguntzaren prestazio egokia ziurtatzearen, argitu egiten da emandako osasun-txartelek, bai eta halako txartelik ezean Espainian osasun-laguntza jaso ahal izateko aurkeztu beharko diren dokumentuek ere, balio duten ala ez; fakturazio- eta itzulketa-prozeduraren ezaugarriak azaltzen dira, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eta Itsasoko Gizarte Institutuari esleitzen zaie hemen aurreikusitakoaren ondoriozko prozedurak kudeatzeko eskumena.

12. artikulua, berriz, Erresuma Batuko hezkuntza-sistematik datozen ikasleei aplikatu beharreko araubidea aurreikusten du. Ikasle horiek Espainiako Unibertsitateetara sartzeko prozedurak baliatzen jarraitu ahal izango dute 2021-2022ko ikasturtean, Europar Batasuneko estatuetakoa hezkuntza-sistematik datozen ikasleentzat aurreikusitako baldintza berberetan, baldin eta beren hezkuntza-sistemetan beren unibertsitateetara sartzeko eskatzen diren baldintza akademikoak betetzen badituzte.

Laugarren kapituluak «Jarduera ekonomikoak» du izenburua, eta hiru atal ditu.

Lehenengo atalean, 13. artikulua esparru bat ezartzen du jarraitutasuna bermatu ahal izateko Erresuma Batuan kokatutako finantza-entitateek Espainian ematen dituzten finantza-zerbitzuen kontratuei. Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren arteko Irteteko Akordioan ezarritako trantsizio-aldia amaitzeak eragina izan lezake Espainiako finantza-sisteman, Londreseko finantza-zentro global gisa duen garrantziaren ondorioz. Ziurgabetasuna handitzeak eta Europako merkaturako irispidea galtzeak finantza-



egonkortasunari eragitea edota finantza-zerbitzuen bezeroei kalte egitea saihestu nahi da, eta, horretarako, finantza-zerbitzuekin zerikusia duten egokitze-neurriak ezartzen dira atal batean.

Europar Batasuneko pasaporteak galtzeak berekin dakar Erresuma Batuan kokatutako finantza-entitateek hirugarren herrialdeetako araubideei egokitu beharra izatea Espainian zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko, baita lehenago sinatu diren baina 2021eko urtarrilaren 1a baino geroagoko muga-eguna duten kontratuen ondoriozko zerbitzuak ematen jarraitzeko ere.

Segurtasun juridikoa eta bezeroaren babesa indartzeko eta finantza-egonkortasunaren kontrako arrisku oro saiheste aldera, 13. artikulua bermatzen du trantsizio-aldia amaitzeko ez duela eragingo kontratuen indarrean. Gainera, aldi baterako araubide bat ezartzen da, hirugarren herrialdeetako araubideei egokitzeak kontratu horiei loturiko zerbitzuetan etenaldirik ez dakarrela bermatzeko, edo, bestela, entitateak ez badu Espainian jarduten jarraitu nahi, kontratuak azkentzea errazteko. Baimena behar duten jardueretarako ezartzen da aldi baterako araubide hori. Baimenik behar ez duten finantza-zerbitzuak emateko kontratuen kudeaketari lotutako jarduerak, berriz, aldi baterako araubidera bildu beharrik izan gabe jarraitu ahal izango dute.

2. atalak, 14. artikuluan, Erresuma Batuko operadore ekonomikoek izango duten egoera arautzen du, kontratazio publikoko prozedurei dagokienez. Erregulazio horren bidez, segurtasun juridikoa eman nahi zaie eta kalterik ez eragin Erresuma Batua Europar Batasunetik Irteteko Akordioan ezarritako trantsizio-aldia amaitu aurretik hasitako kontratazio publikoko prozeduretan parte hartutako operadore ekonomikoek. Akordioaren ildotik, horrelako kasuetan, operadore ekonomiko britainiarrak Europar Batasuneko kide diren estatuak enpresen parekotasun joko dira. Egoera hori bat dator, gainera, Espainian kontratazio publikoa arautu izan duen zuzenbide iragankorarekin. Dena den, publizitate gabe prozedura negoziatuen kasuan, Irteteko Akordioaren beraren testua jasotzea erabaki da, kontratazio-prozedura horien hasiera-data zehazte aldera.

3. atalak zenbait baimeni eta lizentziari aplikatu beharreko erregimena arautzen du. Hala, 15. artikuluan xedea da Espainian bizilekua duten eta Erresuma Batuko gidabaimena duten herritarrei konponbide egokia eskaintzea. Erresuma Batuko gidabaimena gaur egun baliozkoa da gure herrialdean gidatzeko, Europar Batasuneko kide den estatu batek eman duelako, baina baliozkoa izateari utziko dio Erresuma Batua Europar Batasunetik irtetea.

Hori dela eta, sei hilabeteko trantsizio-aldi bat ezartzen da; sei hilabete horietan, Britainia Handiko agintariak emandako gidabaimenen titularrek, legezko bizilekua Espainian badute, gure herrialdean gidatzen jarraitu ahal izango dute, Erresuma Batua Europar Batasunetik irten arren. Trantsizio-aldi hori igarotakoan, hirugarren herrialdeek emandako gidabaimenetarako aurreikusitako Espainiako araudia aplikatuko zaie, eta gidabaimen horiek dagozkien Espainiako gidabaimenarekin trukatu beharko dituzte gure herrialdean gidatzen jarraitzeko.

16. artikulua, berriz, baliozkotzat jotzen ditu Erresuma Batua jatorria edo helmuga duten defentsa-materialetarako inportazio- eta esportazio-baimenak (hurrenez hurren), baldin eta 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak badira eta indarrean badaude trantsizio-aldia amaitzean, Defentsarako materialen, bestelako materialen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo-merkataritzaren kontrolatzeko Erregelamenduaren 2. artikulua aplikatuz (abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretuak onartu zuen erregelamendua).

Erabilera bikoitzeko produktu eta teknologietarako, baliozkotzat jotzen ditu, halaber, trantsizio-aldia amaitzean indarrean dauden Batasunaren barruko transferentzietarako baimenak, Erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko Batasuneko araubidea ezartzen duen Kontseiluaren maiatzaren 5eko 428/2009 (EE) Erregelamenduaren 22. artikulua aplikatuta. Trantsizio-aldia amaitu ondoren, erabilera bikoitzeko produktuen eta teknologiaren esportazio berrietan EU001 Baimen Orokorrean deskribatutakoa erabili ahal izango da, Defentsarako materialen, bestelako materialen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo-merkataritzaren

kontrolatzeko Erregelamenduaren 25. artikulua eta Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 5eko 428/2009 (EE) Erregelamenduaren 9. artikulua aplikatuz. Bestela, dagokion esportazio-lizentzia beharko dute, 428/2009 (EE) Erregelamenduaren 3. artikuluan eta I. eranskinean ezarritakoari jarraituz.

17. artikulua edukiarri dagokionez, kontuan izanik 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenago arma, lehergai, piroteknia-gai eta kartutxoaren transferentzietarako emandako baimenek eta aurretiazko adostasunek bete egiten dituztela segurtasun-betekizunak eta -baldintzak, egiaztatu egin baitira hornitzaileak eta hartzaileak, artikuluan horretan egokitzen jutzen da baimen horiek iraungi arte onartzea, baldin eta Erresuma Batuko agintariek beste horrenbeste egiten badute.

Halaber, ohartarazten da Erresuma Batuak eta Espainiak emandako su-armen Europako txartelek balioa galduko dutela 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera. Azkenik, hau zehazten da: lehergai edo piroteknia-gairen baten bat-etortzea ebaluatzeko prozeduran Erresuma Batuko erakunde jakinaraziren batek parte hartu badu, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteten den egunetik aurrera produktu hori ezingo da merkaturatu.

Azkenik, 18. artikulua bermatzen du Erresuma Batuan jatorria edo helmuga duten hondakinak lekualdatzeko baimenak, baldin eta autonomia-erkidegoek 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen eman badituzte, baliozkoak izango direla baimen horietan ezarritako epea amaitu arte.

V. kapituluak artikulua bakarra du, aireportu-zerbitzuei buruzkoa.

Aireportu-zerbitzuei dagokienez, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteak eragin handia izango du Aena SME SAK kobratzen dituen prestazio publikoetan, Aireko Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legeak aurreikusitako tarifa-egituran tarifa-maila ezberdinak aurreikusita baitaude bidaiariaren xede-herrialdea Europako Esparru Ekonomikoa den ala ez den.

Aplikatu beharreko tarifa bakoitzaren zenbateko zehatza urtero ezartzen da, azpiegituren kudeatzailearen eta horien erabiltzaileen arteko kontsulta-prozesu baten ondoren (sektorearen interesak ordezkatzeko dituzten konpainien elkarte nagusiak dira erabiltzaileak); urtebeteko indarraldia izango dute, eta urte bakoitzeko martxoaren 1ean jarriko dira indarrean. Kontsulta-prozesu hori ez da hautazkoa; aitzitik, aplikatu beharreko tarifa-egitura edo tarifa-mailak aldatu aurretik egin beharrezkotzat jotzen du aplikatu beharreko Europako araudiak.

Trantsizio-aldia amaitzeko ekarriko luke Erresuma Batura doazen bidaiariari aplikatu beharreko tarifen zenbatekoa automatikoki aldatuko litzatekeela urtarriletik aurrera, alderdi interesdunen artean aldaketa horren inguruan kontsultarik eta akordiorik egin gabe.

Aldaketa horren eragina mailakatu ahal izateko, eta bidaiari britainiarrak Espainiara iristeari, hegazkin-konpainiei, garraio-erabiltzaileei eta Aena SME SARI berari eragingo liekeen kaltea minimizatzeko, 19. artikulua aurreikusten du gaur egun aplikatu beharreko tarifa-araubideak jarraitzea aireportuen erabiltzaileek eta azpiegituren kudeatzaileak bestela erabakitzen duten arte.

Errege lege-dekretuaren amaierako zatian, erregulazioa osatzeko beharrezkoak diren xedapen gehigarriak eta azken xedapenak daude, bai eta xedapen iragankor bat eta xedapen indargabetzaile bat ere.

Lehen xedapen gehigarrian, Erresuma Batua irteteak estatu horrekiko merkataritza-harremanetan ondorioak izango dituela eta egoera horretan Espainiako enpresek babesaren beharra izango dutela kontuan harturik, baimena ematen zaio ICEX España Exportación e Inversiones EPE MPri teknikarien lanbide-talderako lan-kontratuko zortzi plazaren deialdia egiteko. Zortzi plaza horiek haren giza baliabideen berrezarpen-tasako plazei gehitu beharrezkoak dira, eta beharrezkoak dira ICEXen jardura indartzeko bai Espainian bai Londresko merkataritza-bulegoan.

Era berean, bigarren xedapen gehigarrian, portuetako agintariei baimena ematen zaie beste lan-eskaintza bat egiteko, berrogeita hamasei plazakoa, portuetako eragiketetan segurtasuna bermatze aldera, hala dena delako dokumentazio espezifiko eskatzeko nola linea erregularretako bidaiarien kontrola edo salgaien kontrola egiteko.

Hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du ez dela Hagako Hitzarmenaren apostillarik beharko titulu eta ikasketak homologatzeko, baliokide deklaratzeko eta baliozkotzeko baldin eta eskaerak 2021eko uztailaren 1a baino lehenago aurkeztu badira.

Laugarren xedapen gehigarriaren arabera, sektore publikoaren esparruan kontraturen bat egin beharra badago errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak gauzatzeko edota egoera Erresuma Batua Europar Batasunetik irtetearen ondorioei egokitzeko, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoa aplikatu ahal izango da, artikuluko horietan bertan ezarritako eran.

Bosgarren xedapen gehigarriaren aurreikusitakoaren arabera, errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera finantzatuko dira, aurrekontuko baliabide-mugak gainditu gabe.

Bestalde, errege lege-dekretu honek seigarren xedapen gehigarri bat du, eta, haren bidez, 2020rako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata finkatzen duen otsailaren 4ko 231/2020 Errege Dekretuaren indarraldia luzatzen da, behar beste luzatu ere, elkarriketa sozialeko mahaiak beste urtebetez lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera ituntzen saiatzeko lanean jarrai dezan.

Alde horretatik, eta alde batera utzi gabe ordezkariak handieneko sindikatuekin eta enpresaburuaren elkarrekin alde aurretik kontsulta egiteari buruz Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 27.1 artikuluan aurreikusitakoa (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina), beharrezkotzat jotzen da gizarte-eragileek lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen benetan parte hartuko dutela bermatzea zailtasun bereziko egoera sozial eta ekonomiko honetan, eta, horrela, jarraipena ematen zaio aldagai horren goranzko bideari, Europan eta nazioartean hartutako konpromisoak beteta.

Otsailaren 4ko 231/2020 Errege Dekretu horrek datorren abenduaren 31n utziko dio ondorioak sortzeari; beraz, aparteko eta presako arrazoiengatik, ezinbestekoa da aldi baterako haren indarraldia urtarrilaren 1etik harago luzatzea. Horrela, segurtasun juridikoa bermatuko da, eta eutsi egingo zaio lanbide arteko gutxieneko soldataren funtzioari: langileentzako gutxieneko soldata-bermea edo -zorua izateari, hain zuzen ere.

Xedapen horrek indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata aldi baterako luzatzea dakar, harik eta 2021erako finkatuko duen errege-dekretua onartu arte, elkarriketa sozialaren esparruan eta Langileen Estatutuaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren esparruan. Artikulu horren arabera, soldata mota horretan hauek hartu behar dira kontuan: kontsumo-prezioen indizea, batez besteko produktibitate nazionala, errenta nazionalan lanak duen partaidetzaren igoera eta egoera ekonomiko orokorra.

Segurtasun juridikoko arrazoiak direla eta, xedapen iragankor bat gehitu da Erresuma Batua joatea eta hala ere prestazioa jasotzeko eskubidea hiru hilabetez mantentzea trantsizio-aldia amaitu aurretik baimendu zaien pertsonentzat, trantsizio-aldia amaitzen den egunean baimenaren epea amaitu ez zaien horientzat (kasu honetan, ez da kontuan hartu esportazioaren sei hilabetera arteko luzapena, Batasuneko erregelamenduetan aurreikusia); izan ere, pertsona horiek Britainia Handiko Enplegu Zerbitzuetan izena emanda egongo lirateke, eta baimendutako esportazioa amaitu arte baino ez lukete mantendu beharko inskripzioa.

Xedapen indargabetzaile bat ere badago: haren bidez espresuki indargabetzen da martxoaren 1eko 5/2019 Errege Lege Dekretua, zeinak kontingentzia-neurriak hartzen baititu Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua Europar Batasunaren Tratatuak 50. artikuluan jasotako akordioa lortu gabe irteten bada ere Europar Batasunetik. Errege lege-dekretu hori 2019ko martxoaren 2ko BOEn argitaratu zen (53. zk.), baina ez zen inoiz jarri indarrean, azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren ondorioz.

Azken xedapenetako lehenengoak zenbait aldaketa sartzeko Aire Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/1960 Legean. Lehenik, 59. artikulua aldatzen da, eta baldintza eta aurreikuspen jakin batzuk kentzen dira, gaur egun aire-segurtasunaren eremuan justifikaziorik ez baitute Europako araudian xedatutakoaren arabera, hala nola nazionalitatea, edo Espainiako aire-operadoreen ardura eta erantzukizuna baino ez den figura baten eskubide zibilak baliatzea. Bigarrenik, lege horren 88. artikulua aldatzen da:



sistema bat diseinatu da, eta haren bidez aire-operadoreei aldi baterako baimena ematen zaie baldintza jakin batzuk dituzten hegaldi jakin batzuk egiteko hegaldi bakoitzerako bere baimena eduki behar izan gabe. Azken urteetan Europan ezarri den segurtasun operazionala ebaluatzeko sistemekiko konfiantza handia denez, ez da beharrekotzat jotzen, oro har, aire-zerbitzuak hegaldi bakoitzean onestea; izan ere, onespén hori, beharrezkoa dena atzerriko operadoreek egiten dituzten eragiketak arautzeko eta nazio-subiranotasuna defendatzeko, beste modalitate orokorrago eta arinago batzuen bidez eman daiteke, eta horrek garrantzi berezia du, aire-operazio asko eta asko egiten baitira gure herrialdearen eta Erresuma Batuen artean.

Azken xedapenetako bigarrenak aldaketa bat sartzen du Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan. II. eranskineko 22. definizioa aldatzen da, itsas autobideetako itsas zerbitzuena, eta Erresuma Batuko portuak kalifikazioan sartzen dira; hala, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera haien trafikoei izaera horri eutsi ahal izango diote. Hala, ontzi-konpainiek autoprestazio-araubidean lurreko langile propioak ere erabiliz eman ahal izango dituzte Erresuma Batuekiko bidaiarientzako eta salgaiak manipulatzeko portu-zerbitzuak, zerbitzu horiek Erresuma Batuekin duten lehiakortasunari eusteko.

Azken xedapenetako hirugarrenak xedatzen du erregelamendu-mailako arauen bidez aldatu ahal izango direla arau honen bidez aldatzen diren erregelamendu-xedapenak.

Azken xedapenetako laugarrenak Estatuaren eskumen-tituluak jasotzen ditu, eta zehazten du zer manu ematen diren aipatutako eskumen haien bidez.

Azken xedapenetako bosgarrenak Gobernuari eta ministerio-departamentuetako titularrei, bakoitzari bere eskumen-eremuan, ahalmena ematen die errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak emateko. Gobernuari ahalmena ematen dio, halaber, hemen ezarritako epeak errege-dekretu bidez luzatzeko, eta *ex lege* adierazten du, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 27. artikulua ondo onarazteko, presaz izapidetu behar direla errege lege-dekretu hau garatzekoak diren xedapen orokorren proiektuak, eta izapidetze horren berri emango zaiola Ministro Kontseiluari. Jakitun dela adierazteko erabakian, Ministro Kontseiluak epea ezarriko du Estatu Kontseiluak irizpena eman dezan, irizpena nahitaezkoa izanez gero. Nahitaezkoak diren gainerako irizpenak ere presaz eman beharko dituzte kontsulta-organoek, bakoitzak araututa daukan presako prozedura erabiliz.

Azkenik, azken xedapenetako seigarrenak xedatzen du 2021eko urtarrilaren 1ean jarriko dela indarrean errege lege-dekretu hau. Hala ere, 4., 9. eta 11. artikulua eta 14. artikulua 2. apartatua ez dira indarrean jarriko, baldin eta 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean jarri bada Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen artean etorkizuneko harremanetarako akordio bat eta horretan espresuki jasota badaude artikulua horietan ezarritako aurreikuspenak.

Halaber, aurreikusten da artikulua horiek indarrean jarriko direla akordio hori behin-behinean aplikatzeko bada eta indargabetzen bada alderdietako edozeinek berresten ez duelako, eta indargabetuko direla, berriz, 2021eko urtarrilaren 1az gero, edozein unetan, etorkizuneko harremanetarako akordio bat indarrean jartzen bada eta horretan espresuki jasota badaude artikulua horietan ezarritako aurreikuspenak.

Nolanahi ere, artikulua horiei dagokienez aurreikusitako salbuespenak ez dira aplikatuko Gibraltarren kasuan.

V

Errege lege-dekretu hau koherentea da erregulazio onaren printzipioekin (printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen dira).

Aurreko ataletan azaldutakoaren arabera, argi dago premiaren eta efikaziaren printzipioak betetzen direla. Halaber, errege lege-dekretua bat dator proportzionaltasunaren printzipioarekin, zeren eta aipatutako helburuak lortzeko ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen baitu, eta, aldi berean, segurtasun juridikoaren printzipioari egokitzen zaio.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez, ez da aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea bete, ez eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea ere; Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.11 artikulua horretarako aukera ematen du.

## VI

Konstituzioaren 86. artikulua araberan, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «premia apartekoa eta presazkoa egonez gero», baldin eta haiak ez badute eraginik, ez Estatuaren oinarriko erakundeentzako antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren araberan, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailearen 3koa, 3. oinarria; 189/2005 epaia, uztailearen 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria), presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, betiere Gobernuaren helburuen barruan, aurreikusten zailak diren arazoengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean —ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan—, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Beraz, ziurtatuta geratu behar da badela «ezinbesteko lotura bat zehaztutako presazko egoeraren eta egoera hori konpontzen laguntzeko neurri zehatzaren artean (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa, eta 137/2003 epaia, uztailearen 3koa, 4. oinarri juridikoa)».

Europar Batasuneko estaturen bat Europar Batasunaren Tratatuaren 50. artikuluan aurreikusitako prozedurari helduta Europar Batasunetik irtetea ez da inoiz gertatu lehenago Europar Batasunaren historian. Gainera, Irteteko Akordioan aurreikusitako trantsizio-aldia berehala amaituko denez, premiaz hartu behar dira merkatu bakarretik eta aduana-batasunetik irteteak nahitaez ekarriko dituen eragozpenak minimizatzeko behar diren neurriak.

Beraz, errege lege-dekretu honen helburua, Batzordearen komunikazioen eta Europar Batasunak onartu duen ekintza-planaren ildo beretik, egokitze-neurriak ezartzea da, Estatuaren eskumen-eremuaren barruan, behar-beharrezkoak baitira egoera berrirako trantsizioa errazteko eta, horrela, trantsizio-aldiaren ondorio kaltegarriak ahal den neurrian leuntzeko eta tratatuetan ematen zaizkien askatasunen babesean beren eskubideak baliatu izan dituzten herritar eta operadoreen interesak zaintzeko.

Neurri horiek aplikatzeko presa hainbestekoa izanda, argi dago, legegintzako prozedura arrunta erabiltzen bada, presaz izapidetuta ere ez litzatekeela lortuko trantsizio-aldiaren osteko irtetearen eraginak leuntzeko neurri horiek garaiz ezartzea. Irtete horren ondorioz, tratatuak eta Europar Batasunaren altxor osoa Erresuma Batuarekiko harremanetan aplikatzeari utziko zaio 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan eragiteko debekuari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren doktrina sendo-batek honela interpretatzen du debeku hori, uztailearen 31ko 139/2016 epaian laburbilduta (6. oinarri juridikoa):

«1. Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua araberan, errege lege-dekretuak ezin du eraginik sortu Espainiako Konstituzioaren I. tituluaren araututako eskubide, eginbehar eta askatasunetan, baina Konstituzio Auzitegiak baldintza horren interpretazio zabala egitea baztertzen du; izan ere, horrela eginez gero, errege lege-dekretuaren figura hutsalduko litzateke, eta «ez luke balioko Konstituzioaren I. tituluaren sartzeko diren arloei buruzko ezein alderdi arautzeko».

2. Baldintza hori errege lege-dekretuaren figura ezerezean ez gelditzeko moduan ulertu behar da; izan ere, Konstituzioaren arabera debekatzen dena da eskubide, eginbehar eta askatasun horien araubide orokor bat ezartzea edo eskubide horietako batzuen edukiaren edo oinarritzko elementuen aurka egitea (Konstituzio Auzitegiaren 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 8. oinarri juridikoa, eta geroagoko batzuen bidez berretsia).

3. Auzitegiak ez du lege-erreserbaren printzipioa gai jakin batean nola ageri den bakarrik kontuan hartu behar; aitzitik, aztertu behar du ea lege-dekretuak «erasan» ote dien Espainiako Konstituzioaren I. tituluan araututako eskubide, betebehar edo askatasunei, eta, horretarako, kontuan hartu beharko ditu kasu bakoitzean ukitutako eskubide, betebehar edo askatasunak Konstituzioan duen konfigurazioa eta are Konstituzioan duen kokapen sistematikoa eta kasuan kasuko arauketaren norainokoa (...).».

Errege lege-dekretu honek errespetatu egiten du Konstituzio Auzitegiaren doktrina hori. Izan ere, ez du ukitzen Konstituzioko eskubide, betebehar eta askatasunen araubide orokorra eta ez die aurka egiten haien edukiari eta funtsezko osagaiei; Erresuma Batuko nazionalitatea izan eta Espainian bizilekua dutenen interesak eta haien ahaideenak aldi baterako babestu baino ez du egiten. Interes horiek aldi baterako zenbait neurriren bidez babesten dira errege lege-dekretu honetan; neurri horiek betetzeko, hein handi batean, Erresuma Batuak antzeko baldintzetan bermatu behar du Espainiako nazionalitatea duten pertsonen interesak babestuko direla, elkarrekotasun-printzipioarekin bat etorrira.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenez baliatuta, Gobernuko lehen presidenteorde eta Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Memoria Demokratikoko ministroak, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako ministroak, Defentsako ministroak, Ogasuneko ministroak, Barneko ministroak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ministroak, Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroak, Industria, Merkataritza eta Turismoko ministroak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako ministroak, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroak, Trantsizio Ekologikorako eta Erroka Demografikorako ministroak, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak, Osasuneko ministroak, Zientzia eta Berrikuntzako ministroak, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioko ministroak eta Unibertsitateetako ministroak proposatuta, eta 2020ko abenduaren 29ko bilkuran Ministro Kontseiluak eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. *Xedea.*

Errege lege-dekretu honen xedea Espainiako ordenamendu juridikoa egokitzeko neurriak hartzea da, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua Europar Batasunetik eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegotik irteteari buruzko 2020ko urtarrilaren 31ko Akordioan aurreikusitako trantsizio-aldia amaitu ondoren Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua (aurrerantzean, Erresuma Batua) Europar Batasunetik irtetearen ondorioei aurre egiteko.

#### 2. artikulua. *Aplikatu beharreko arauak eta neurrien iragankortasuna.*

1. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, hirugarren estatu bateko herritarrei dagokien araudia aplikatuko zaie Erresuma Batuko herritarrei, baina Irteteko Akordioan, errege lege-dekretu honetan eta hura garatzeko araudian eta Espainiak edo Europar Batasunak etorkizunean egiten dituen nazioarteko akordioetan xedatutakoa kontuan hartuko da betiere.

2. Indarrean egoteko epe mugatua duten errege lege-dekretu honetako neurriek, besterik gabe, epe hori amaitzean utziko diote indarrean egoteari, salbu eta Gobernuak hura luzatzen badu erabaki baten bidez.

3. artikulua. *Elkarrekikotasuna.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik bi hilabeteko epea igarotzean, eten egingo dira bertan araututako neurriak, espresuki hala aurreikusten den kasuetan, baldin eta britainiar agintari eskudunek ez badiete elkarrekikotasunezko tratamendurik ematen Espainiako nazionalitatea duten pertsona fisiko edo juridikoei Erresuma Batuan edo Gibraltarren, ukitutako eremu guztietan.

2. Ministro Kontseiluaren erabakiz gauzatuko da etete hori, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako ministroaren proposamenari jarraituz, eta gaiaren arabera eskumena duen ministerioak txostena egin ondoren. Bertan zehaztuko da etetearen eguna.

## II. KAPITULUA

### Lanbide- eta lan-harremanak

1. atala. *Lanbideak eta funtzio publikoa*

4. artikulua. *Lanbideratzea eta lanbidean jardutea.*

1. Erresuma Batuko nazionalitatea dutenek, 2020ko abenduaren 31n Espainian lanbide batean edo lanbide-jarduera batean modu iraunkorrean ari badira, lanean jarraitu ahal izango dute lehen bezala eta izapide gehiagoren beharrik gabe, nahiz eta lanbide horretan sartzeko eta aritzeko baldintza izan Europar Batasuneko estatu bateko nazionalitatea izatea. Betiere, jarduerarako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.

2. Erresuma Batuko nazionalitatea dutenek parte hartu ahal izango dute zenbait lanbideetan aritu ahal izateko gaitasun-probetan, eta nazionalitatearen dispentsaren izapidea beharrezkoa den probetan ez dute izapide hori bete beharrik izango, baldin eta proba horietarako deialdia 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen egin bada.

3. Erresuma Batuan edo Europar Batasuneko beste zeinahi estatutan lortutako lanbide-kualifikazioak aitortzeko eskaerei dagokienez, Erresuma Batuko nazionalitatea dutenek horrelako eskaerak aurkezten badizkiete Espainiako agintariei errege lege-dekretu hau indarrean jarri baino lehen edo hurrengo bost urteetan, 2020ko abenduaren 31n zegoen araubide juridikoari jarraituz ebaztuko dira eskaerak, baldin eta kualifikazioa lortzeko ikasketak edo jarduerak hasia 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen onartu bada.

Ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretuak 29. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean prestakuntza-tituluen aitorten automatikorako eskaerak aurkezten bazaizkie Espainiako agintariei errege lege-dekretu hau indarrean jarri baino lehen edo hurrengo bost urteetan, aitorten hori lortu ahalko da baldin eta titulua lortzeko ikasketak hasia 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen onartu bada, titulua noiz eman den alde batera utzita, salbu eta Erresuma Batuan aldatzen badu titulazio horietakoren bat lortzeko behar den prestakuntza eta horren ondorioz nabarmen urruntzen bada Europar Batasunean ezarritako gutxieneko prestakuntza-baldintzetatik (ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko azaroaren 20ko 2013/55/EB Zuzentaraua txertatzen du Espainiako ordenamendu juridikoan; zuzentarau horrek, berriz, aldatu egiten ditu 2005/36/EE Zuzentaraua, lanbide-kualifikazioak aitortzeari buruzkoa, eta 1024/2012 (EB) Erregelamendua, Barne Merkatuaren Informazio Sistemaren bidez administrazioko lankidetzaren emateari buruzkoa, BMI Erregelamendua). Inguruabar hori Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez berretsiko da.

4. Espainiarrek edo Europar Batasuneko beste estatu bateko nazionalitatea dutenek Erresuma Batuan lortutako lanbide-kualifikazioak aitortzeko eskaerei dagokienez,

Espainiako agintariei halako eskaerak aurkezten bazaizkie errege lege-dekretu hau indarrean jarri baino lehen edo hurrengo bost urteetan, 2020ko abenduaren 31n zegoen araubide juridikoari jarraituz ebatziko dira, baldin eta kualifikazioa lortzeko ikasketak edo jarduerak hasia 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen onartu bada.

Ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretuak 29. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean prestakuntza-titulua automatikoki aitortzeko eskaeren kasuan, eskaerak errege lege-dekretu hau indarrean jarri baino lehen edo hurrengo bost urteetan aurkezten bazaizkie Espainiako agintariei, aitortzen hori lortu ahal da baldin eta titulu horiek lortzeko ikasketak hasia 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen onartu bada, titulua noiz eman den alde batera utzita, salbu eta Erresuma Batuk aldatzen badu titulazio horietakoren bat lortzeko behar den prestakuntza eta horren ondorioz nabarmen urruntzen bada Europar Batasunean ezarritako gutxienezko prestakuntza-baldintzetatik. Inguruabar hori Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez berretsiko da.

5. Erresuma Batuko nazionalitatea duten eta Erresuma Batuan edo Europar Batasunean estatu batean kokatuta dauden pertsonak, eta Europar Batasunean estatu bateko nazionalitatea duten eta Erresuma Batuan kokatuta dauden pertsonak, Espainian aldi baterako edo noizean behin lanbide edo jarduera profesional batean badihardute ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretuaren II. tituluaren eta Espainian gai horri buruz indarrean dagoen gainerako araudian aurreikusitako baldintzetan, 2021eko urtarrilaren 1aren aurretik egindako eta indarrean dauden kontratuak gauzatzeko helburuarekin soilik jarraitu ahal izango dute jarduera horretan.

Aurreko paragrafoan aipatutako pertsonak, beren lanbidean edo lanbide-jardueran aldi batez edo behin-behinean jarduteko asmotan aurretiazko adierazpena egina badute Espainian, adierazpen horren indarraldian lanean jarraitu ahal izango dute, berritzeko aukerarik gabe, ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretuaren II. tituluaren aurreikusitako baldintzetan, baldin eta aplikatu beharreko gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Horretarako, Erresuma Batuko nazionalitatea duten pertsonak, baldin eta 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen Espainian bazeuden, Espainian geratu ahal izango dira, alde aurretik bizileku- eta lan-baimena lortu beharrik izan gabe. Paragrafo honetan ezarritakoa aplikatzeko, britainiar agintari eskudunek ere pareko tratamendua eman behar dute, 3.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

6. Erresuma Batuko legeriaren arabera eratu diren eta helbidea, administrazio zentrala edo jarduera-zentro nagusia Erresuma Batuan duten lanbide-sozietateek, 2021eko ekainaren 30era arte jarraitu ahal izango dute beren xede soziala den jardueran Espainian, baldin eta egun hori baino lehen Espainian ohikotasunez jardun izan badute Lanbide Sozietateei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren babesean.

Aurreko paragrafoan aipatutako sozietateen xede den jardueran Espainian ari diren pertsonak kasuan kasuko lanbide-elkargoko kide izan beharko dute.

7. 2020ko abenduaren 31n Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden kontu-auditoreei eta auditoretza-sozietateei, 2021ean, ez die eragingo Erresuma Batua hirugarren herrialde bihurtzeak, Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legeak 10. eta 11. artikuluetan ezartzen dituen betekizunak betetzeari dagokionez.

8. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, 4. apartatuan ezarritakoa izan ezik, britainiar agintari eskudunek ere pareko tratamendua eman behar dute, 3.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

5. artikulua. *Erresuma Batuko nazionalitatea dutenak Espainiako administrazio publikoetako enplegatu publiko bihurtzeko eta halakoak izaten jarraitzeko arauak.*

1. Espainiako administrazio publikoetako karrerako funtzionarioek, bitartekoek eta praktiketakoek, Erresuma Batuko nazionalitatea badute edo Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak 57.2 artikuluan aurreikusten dituen inguruabar pertsonalak badituzte eta 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen sartu edo hasi badira zerbitzuan, lanean segituko dute, lehengo baldintzekin (testu bategin hori urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).



2. Erresuma Batuko nazionalitatea dutenek Espainiako administrazio publikoetako funtzionarioak hautatzeko prozesuetan parte hartu ahalko dute, baldin eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko epearen azken eguna 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa izan bada.

3. Erresuma Batuko nazionalitatea dutenek enplegatu publiko lan-kontratadun izaten jarraitu ahalko dute, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 57.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

4. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, britainiar agintari eskudunek ere pareko tratamendua eman behar dute, 3.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

## 2. atala. Lan-harremanak

6. artikulua. *Zerbitzu-prestazio baten esparruan aldi baterako lekualdatutako langileei aplikatu beharreko araubide iragankorra.*

1. Espainian kokatuta dauden enpresek, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 16ko 96/71/EE Zuzentarauak adierazten duen moduan langileren bat Erresuma Batura edo Gibraltarrera aldi baterako bidalita badaukate 2021eko urtarrilaren 1ean (zerbitzu-prestazioen esparruan langileak lekualdatzeari buruzkoa da 96/71/EE Zuzentaruak), zuzentaru horren transposizioa egiten duen Erresuma Batuko legeria aplikatzen jarraitu beharko dute langile hori han dagoen bitartean.

2. Aurreikuspen hori aplikatuko da baldin eta britainiar agintari eskudunek pareko tratamendua ematen badiete Erresuma Batuan edo Gibraltarren kokatutako enpresek 96/71/EE Zuzentaruak adierazten den moduan Espainiara aldi baterako bidalitako langileei.

3. Erresuma Batuan edo Gibraltarren kokatutako enpresetako langileek, 2020ko abenduaren 31 baino lehen Espainiara lekualdatu badira zerbitzuak emateko, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera Espainian jarraitu ahal izango dute zerbitzu horiek emateko, harik eta dagokion lan-agintaritzari jakinarazi zitaion lekualdaketa aurreikusitako iraupena amaitu arte. Horretarako, ez dute izango alde aurreko bizileku- eta lan-baimena lortu beharrik.

Apartatu honetan ezarritakoa aplikatzeko, britainiar agintari eskudunek ere pareko tratamendua eman behar dute, 3.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

4. Lekualdaketa 2020ko abenduaren 31 baino lehen hasi bada eta hartarako hasieran aurreikusitako iraupena luzatu nahi bada, bizileku- eta lan-baimena lortu behar izango da alde aurretik, atzeritartasunari buruzko araudian aurreikusitakoari jarraituz, eta ezin izango da bisarik exijitu. Baimen hori Espainian ezarrita dagoen enpresak eskatuko du, lekualdatutako langilearentzat, eta ez da aplikatuko enpleguko egoera nazional delakoa.

5. Erresuma Batuan edo Gibraltarren kokatutako enpresetako langileek, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera Espainiara lekualdatzen badira, berriz, Espainiako atzeritartasun-arloko araudian aurreikusitako nahitaezko bisak edo bizileku- eta lan-baimenak lortu beharko dituzte, baina Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren artean akordioaren bat egiten bada azkenean, hartan hartutako konpromisoak bete beharko dira betiere.

7. artikulua. *Europako Erkidegoan hedatutako enpresetan edo enpresa-taldeetan enpresa-batzorde europarrak mantentzea Erresuma Batuekin.*

Zuzendaritza zentrala Espainian izanik Erresuma Batuko langile edo enpresaren bat barruan hartzen duten enpresa-batzorde europarrek edo langileei informazioa emateko eta kontsulta egiteko ordezkotako prozedurek, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteten den eguna (2021eko urtarrilaren 1a) baino lehen eta apirilaren 24ko 10/1997 Legeari jarraituz eratu edo adostu badira, indarrean jarraituko dute lege horretan aurreikusitako baldintzekin, lege horretan bertan aurreikusitako moduan aldatzen ez diren bitartean (10/1997 Legea Europako Erkidegoan hedatutako enpresetako eta enpresa-taldeetako langileen informazio- eta kontsulta-eskubideei buruzkoa da).

### 3. atala. Ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak

#### 8. artikulua. Ikerkuntza-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak egitea.

1. 2020ko abenduaren 31n Espainian ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jardueretan diharduten eta Erresuma Batuko nazionalitatea duten pertsonak aitortuak dituzten baldintza berberetan jarraitu ahal izango dute jarduera horietan, eta Espainian indarrean dagoen legeria aplikatuko zaie, baldin eta Erresuma Batuan edo Gibraltarren eskumena duten agintariak pareko tratamendua aitortzen badiete Espainiako nazionalitatea dutenei. Hau hartzen da ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jardueratzat: zientziaren edozein arlotan (gizakia, kultura eta gizartea barne) ezagutza-bolumena areagotzeko modu sistematikoan egindako sormen-lana, bai eta ezagutza horiek aplikazio eta zerbitzu berriak sortzeko erabiltzea, transferitzea eta zabaltzea ere, erakunde publikoetan zein pribatuetan, irabazteko asmoarekin zein asmorik gabe.

2. Nolanahi ere, artikulua honetan xedatutakoan sartuko dira, halaber, Erresuma Batuko nazionalitatea duten eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legean xedatutakoaren arabera ikertzaile-izaera duten pertsonak, bai eta Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan definitutako irakasleak eta ikertzaileak ere.

### 4. atala. Gizarte Segurantza

#### 9. artikulua. Gizarte Segurantzaren arloan aplikatzekoa den legeria zehaztea.

Gizarte Segurantzaren arloan zer legeria aplikatu behar den zehazteko, betiere baldin eta britainiar agintariak berdin jarduten badute, errege lege-dekretu honen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Espainiak arau hauek aplikatuko dizkie Espainiako eta Erresuma Batuko Gizarte Segurantzaren legeriei lotuta dauden pertsonari:

1. Ondorio horretarako, besteren edo norberaren konturako jarduera batean aritzeagatik edo haren ondorioz diruzko prestazioa jasotzen duten pertsonak jarduera horretan arituko balira bezala hartuko dira. Arau hori ez zaie aplikatuko baliaezintasuneko, zahartzaroko edo biziraupeneko pentsioei, lan-istripuagatik edo lanbide-gaixotasunagatik errentei, ezta iraupen mugagabea duten diruzko gaixotasun-prestazioei ere.

2. 5. apartatuan aurreikusitako salbuespenak alde batera utzi gabe:

a) Estatuetakoa batean (Erresuma Batuan edo Espainian) besteren kontura edo norberaren kontura jarduera batean diharduen pertsona estatu horretako Gizarte Segurantzaren legeriari lotuta egongo da.

b) Enplegatutako publikoak, lan egiten duten administrazioa estatuetakoa zeinen mende egon (Erresuma Batua edo Espainia), estatu horretako legeriari lotuta egongo dira.

c) Pertsona bat Erresuma Batuko Estatu edo Espainiako Estatu soldadutzara edo zerbitzu zibilera deitzen edo horretara itzultzeko deitzen badute, pertsona hura estatu horretako legeriari lotuta dago.

d) Aurreko a) letratik c) letrara bitarteko xedapenak aplikatu behar ez zaizkion beste edozein pertsona bera bizi den estatuko legeriari lotuta egongo da, Erresuma Batukoari edo Espainiakoari.

3. Artikulu honen ondorioetarako, Erresuma Batuko edo Espainiako Estatu bandera duten itsasontzietan gauzatu ohi diren besteren konturako edo norberaren konturako jarduerak estatu horretan gauzatutako jardueratzat joko dira. Hala ere, Erresuma Batuko edo Espainiako Estatu bandera duen ontzi batean lanean diharduen pertsonari ordaintzen dion enpresak edo pertsonak beste estatuan (Erresuma Batua edo Espainia) badu egoitza edo helbidea, langile hori estatu horretako legeriari lotuta egongo da, bertan badu bizilekua. Ordainsaria ordaintzen duen enpresa edo pertsona enpresaburutzat hartuko da legeria horren ondorioetarako.

4. Bidaiarien edo salgaien aireko garraioko zerbitzuetan, hegaldiko edo kabinako eskifaiako kideen jarduera hegazkin-basea dagoen estatuan (Erresuma Batuan edo Espainian) egindako jardueratzat joko da.

5. Aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera:

a) Estatuetako batean (Erresuma Batua edo Espainia) soldatapeko jardueraren bat duen pertsonak, normalean bere jarduera estatu horretan duen enplegatzaile baten kontura jarduten badu eta enplegatzaile horrek beste estatura bere konturako lan bat egiteko bidaltzen badu, lehen estatuko legeriari lotuta jarraituko du, baldin eta lan horretarako aurreikusten den denbora ez bada hogeita lau hilabetetik gorakoa eta pertsona hori beste pertsona baten ordez bidaltzen ez bada.

b) Norberaren konturako jarduera bat normalean Erresuma Batuko edo Espainiako Estatuan duen eta antzeko jarduera baterako beste estatura joaten den pertsonak lehen estatuko legeriari lotuta jarraituko du, baldin eta lan horretarako aurreikusten den denbora ez bada hogeita lau hilabetetik gorakoa.

#### 5. atala. Langabezia-prestazioak eskuratzea

#### 10. artikulua. Langabezia-prestazioak eskuratzea.

1. Europar Batasuneko edozein estatutan 2020ko abenduaren 31ra arte egiaztatutako aseguru-aldiak, Britainia Handiko Gizarte Segurantzaren sisteman egindakoak barne, kontuan hartuko dira Erresuma Batuko nazionalitatea duten pertsonak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren III. eta V. tituluetan araututa dauden langabeziagatiko edo jarduera uzteagatiko prestazioak eskuratzeko eta kalkulatzeko, baldin eta Espainian kotizatu badute azken aldiz eta legezko bizilekua Espainian izateko eskubideari eusten badiote, Gizarte Segurantzako sistemak koordinatzeko erregelamenduetan (EE) aurreikusitakoaren arabera (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategin hori).

2. Britainia Handiko Gizarte Segurantzaren sisteman 2020ko abenduaren 31ra arte egiaztatutako aseguru-aldiak kontuan hartuko dira Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea duten pertsonak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren III. eta V. tituluetan araututa dauden langabeziagatiko edo jarduera uzteagatiko prestazioak eskuratzeko eta kalkulatzeko, baldin eta Espainian kotizatu badute azken aldiz, Gizarte Segurantzako sistemak koordinatzeko erregelamenduetan (EE) aurreikusitakoaren arabera (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategin hori).

3. Lan-jardueraren bat egiteko egunero Gibraltarrera joaten diren Europar Batasuneko herritarrek, legezko bizilekua Espainian badute eta Irteteko Akordioaren aplikazio-eremuaren barruan ez badaude, langabezia-prestazioak eskuratu ahal izango dituzte, 2022ko abenduaren 31ra arte, trantsizio-aldia amaitu aurretik eta ondoren Gibraltarren egiaztatutako aseguru-aldiengatik, eta ez da beharrezkoa izango azken aldiz Espainian kotizatu izana.

2021eko urtarrilaren 1aren ondoren Gibraltarren egiaztatutako edo egindako aseguru-aldiei dagokienez, Espainiak ordaintzen dituen prestazioen itzulketa erreklamatu zaie Erresuma Batuko agintari eskudunei, artikulua honetan aipatutako langileentzako langabezia-prestazioak emateko eta itzultzeko lankidetzeta-mekanismoak ezarri behar dituen nazioarteko tresna adosten denean.

## III. KAPITULUA

**Osasun-laguntza eta unibertsitatera sartzea**11. artikulua. *Osasun-laguntza jasotzea.*

1. 2021eko ekainaren 30era arte, Espainiak arau hauek aplikatuko ditu osasun-laguntza jasotzeko dagokionez:

a) Erresuma Batuan edo Gibraltarren dagozkien entitateen kontura osasun-laguntza jasotzeko eskubidea duten pertsonen osasun-laguntza jasoko dute Espainiako Osasun Sistema Nazionalean, 2021eko urtarrilaren 1aren aurretik ezarritako modu berean eta baldintza berekin, baldin eta Erresuma Batuak osasun-laguntza ematen badie Espainiaren kargura osasun-laguntza jasotzeko eskubidea duten espainiarrei edo beste herrialde batzuetako herritarrei 2021eko urtarrilaren 1aren aurretik ezarritako modu berean eta baldintza berekin, eta Erresuma Batuko nazionalitatea dutenei edo Erresuma Batuan nahiz Gibraltarren dagozkien entitate britainiarren kargura osasun-laguntza jasotzeko eskubidea duten beste edozein herrialdeko herritarrei Espainiako Osasun Sistema Nazionalean osasun-laguntza emateak eragindako gastuak itzultzen badizkio Espainiari.

b) Aurreko letran aipatzen diren herritarrei emandako osasun-txartel indibidualak indarrean jarraituko dute, eta 2021eko ekainaren 30era arte eraginkortasun osoa izango dute Osasun Sistema Nazionalean osasun-laguntza jasotzeko.

Egonaldi mugatu eta programatutako tratamenduen kasuan, a) letran aipatutako pertsonen kasuan entitateen kargurako osasun-estalduraren frogagiria aurkeztu beharko dute, eta Osasun Sistema Nazionalako osasun-zentro guztietan onartuko da agiri hori.

Bizilekua Espainian badute eta osasun-txartel indibidualik ez badute, a) letran aipatutako pertsona horiek dagozkien entitate britainiarren kargura osasun-laguntza jasotzeko eskubidea dutela frogatzeko agiria aurkeztu beharko diote Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari, agintari britainiarrek horretarako berariaz emanda.

c) Dagozkien entitate britainiarren kargura osasun-laguntza jasotzeko eskubideak, a) letran aipatutako pertsonen kasuan, lehentasuna izango du, Espainian legezko bizilekua izateak edo bertan egoteak sor diezaiekeen beste edozein eskubideren aldean.

d) Espainiak dagozkien entitate britainiarrei ordaindu egingo die Espainiako herritarrek eta Espainiaren kargura osasun-laguntza jasotzeko eskubidea duten beste herrialde batzuetako hango osasun-sistema publikoan jasotako osasun-laguntza, 2021eko urtarrilaren 1aren aurretik indarrean zeuden baldintza berberetan, baldin eta entitate horiek gauza bera egiten badute Espainiarekin.

e) Espainiak a) letran aurreikusten den osasun-laguntzaren kostuak fakturatuko dizkie haiek dagozkien entitate britainiarrei.

f) Artikulu honen arabera ematen den osasun-laguntzaren kostuak fakturatzeko eta itzultzeko prozedurak, bai eta zenbatekoak eta horiek eguneratzeko eta ordaintzeko irizpideak ere, 2020ko abenduaren 31ra arte erabilitako berak izango dira.

g) Artikulu honetan aurreikusten diren prozedurak kudeatzeko eskumena 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ere Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak edo Itsasoko Gizarte Institutuak izango dute.

2. Aurrerantzean ere emango dira botikak Erresuma Batuan egindako errezeten truke Errezeta Medikoari eta Botikak Emateko Aginduei buruzko abenduaren 17ko 1718/2010 Errege Dekretuan ezarritako moduan, baldin eta Erresuma Batuak eta Gibraltarrek beste horrenbeste egiten badute.

3. Lehenengo eta bigarren apartatuetan aurreikusitako tratu baliokidea emateari edota gastuak itzultzeko uko egiten bazaio, errege lege-dekretu honen 3.1 artikuluan adierazten den moduan jokatu da.

12. artikulua. *Unibertsitatera sartzea.*

Erresuma Batuko hezkuntza-sistemetatik datozen ikasleek aukera izango dute, 2021-2022ko ikasturterako, Espainiako unibertsitateetan sartzeko prozeduretan parte hartu ahal izateko Europar Batasuneko estatuetakoa hezkuntza-sistemetatik datozen ikasleentzat aurreikusitako baldintza berberetan, baldin eta beren hezkuntza-sistemek beren unibertsitateetan sartzeko eskatzen dizkieten betekizun akademikoak betetzen badituzte.

## IV. KAPITULUA

### Jarduera ekonomikoak

#### 1. atala. *Finantza-zerbitzuak*

13. artikulua. *Kontratuen jarraitutasuna.*

1. Erresuma Batuan helbidea duen eta Erresuma Batuko agintaritzak eskudunak baimenduta edo erregistratuta dagoen entitate batek Espainian banku-, balore-, aseguru-zerbitzuak edo bestelako finantza-zerbitzuak emateko kontratuek, baldin eta 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen sinatu badira, indarrean jarraituko dute, artikuluko honetako 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako baldintzetan, bai eta kontratuetan bertan aurreikusitako baldintzetan ere, baldin eta baldintza horiek apartatu horietan xedatutakoaren aurka ez badoaz.

2. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, hirugarren estatuetakoa entitateek banku-, balore-, aseguru-zerbitzuak edo bestelako finantza-zerbitzuak emateko arloko legerian aurreikusten den araubidea aplikatuko zaie 1. apartatuan aipatutako entitateei, eta kasu hauetan beste baimen bat lortu beharko dute:

- a) 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen sinatutako kontratuak berritzeko.
- b) 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen sinatutako kontratuetan aldaketak sartzeko, baldin eta aldaketek Espainian zerbitzu berriak ematea badakarte edo alderdien funtsezko betebeharrak eragiten badiete.
- c) Kontratuen kudeaketari lotutako jarduerak baimena behar duten kasuetarako.
- d) Kontratu berriak egiteko.

2021eko urtarrilaren 1a baino lehenago sinatutako kontratuen kudeaketatik eratorritako jarduerak, a) eta c) letretan azaldutako kasuetako batean ere ez badaude, ez dute baimen berri baten beharrik izango.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, Britainia Handiko agintaritzak eskudunak hasiera batean 1. apartatuan aipatzen diren entitateei emandako baimenak edo erregistroak indarrean jarraituko du behin-behinean, 2021eko ekainaren 30era arte, bi helburu hauetako baterako behar diren jarduerak egiteko 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenago sinatutako kontratuei dagokienez: kontratuak modu ordenatuan amaitzeko edo kontratuan aurreikusitako baldintzetan Espainian finantza-zerbitzuak emateko behar den baimena duten entitateei lagatzeko.

Aseguru-entitateen kasuan, apartatu honetan aurreikusitako epea 2022ko abenduaren 31ra arte luzatu ahal izango da, beren jarduerari amaiera emateko bidean dauden aseguru-kontratuen zorroak kudeatzeko, baldin eta aseguru-entitateak kontingentzia-plan bat aurkezten badu eta Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak espresuki baimentzen badu.

4. Espainiako Bankuak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak gainbegiratzeko ahalmena izango dute, bakoitzak bere eskumeneko eremuan, eta, bereziki, lehen apartatuan aipatutako entitateei eskatu ahal izango diete edozein dokumentu edo informazio aurkezteko edo behar diren jarduketak egiteko.



Entitateok ez badute eskatutakoa egiten horretarako emandako epearen barruan, agintari gainbegiratzailerik kendu ahalko dute behin-behineko indarraldia, kasuan kasuko entitateari dagokionez. Halakoetan, ukitutako entitateari adieraziko zaio jarduera erreserbatu bat egiten ari dela baimenik gabe, eta jarduera erreserbatuak baimenik gabe egiten dituztenei Espainian aplikatzen zaien zehapen-araubidearen pean egongo da.

5. Espainiako Bankuak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, bakoitzak bere eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteak eragin diezaikeen finantza-zerbitzuen erabiltzaileen segurtasun juridikoa bermatzeko eta haien interesak babesteko.

## 2. atala. Kontratazio publikoa

14. artikulua. *Kontratazio publikoko prozedurei aplikatu beharreko araubide juridikoa.*

1. Azaroaren 8ko 9/2017 Legeari, otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuari edo abuztuaren 1eko 24/2011 Legeari lotutako adjudikazio-prozeduretan parte hartzen duten Erresuma Batuko operadore ekonomikoei, 2021eko urtarrilaren 1aren aurretik hasia badute kontratazio-espeditentea, lege horietan eta beroriek garatzeko arauetan Europar Batasuneko estatuetakoen enpresentzat aurreikusita dauden arauak aplikatuko zaizkie aurrerantzean ere (azaroaren 8ko 9/2017 Legea sektore publikoko kontratuena da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora; otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretua presako neurriena da, eta haren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen dira Europar Batasuneko zenbait zuzentzari —sektore jakin batzuetako kontratazio publikoaren, aseguru pribatuen, pentsio-plan eta -funtsen, tributuen eta auzi fiskalen eremuetakoak—; eta abuztuaren 1eko 24/2011 Legea sektore publikoko defentsaren eta segurtasunaren arloetako kontratuei buruzkoa da).

Horri dagokionez, kontratua adjudikatzeko prozeduraren deialdia ordurako argitaratuta badago iritziko zaio kontratazio-espeditentea hasita dagoela. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen kasuan, botere edo entitate adjudikatzailerik berriazko prozedurari dagokionez operadore ekonomikoekin harremanetan jartzen den unea joko da prozeduraren hasieratzat.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kontratazio publikoaren araudiari lotutako adjudikatzeko-prozeduretan parte hartzen duten Erresuma Batuko operadore ekonomikoei Europar Batasunekoak ez diren estatuetakoen edo Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoen enpresentzat araudi horretan aurreikusitako araubidea aplikatu beharria da, baldin eta prozeduren kontratazio-espeditentea Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua Europar Batasunetik eta Energia Atomikoaren Europako Erkidetarik irteteari buruzko Akordioaren 126. artikuluan aipatutako trantsizio-aldia amaitu ondoren hasi bada.

## 3. atala. Baimenak eta lizentziak

15. artikulua. *Gidabaimenak.*

1. Britainiar agintariek emandako gidabaimen indardun eta baliozkoek gure herrialdean sei hilabetez gidatzeko aukera emango die titularrei, 2021eko urtarrilaren 1etik.

2. Aurreko apartatuan aipatutako epea amaitu ondoren, britainiar agintariek emandako gidabaimenen araubidea hirugarren herrialdeetan emandako baimenena izango da, trafiko-arloan indarrean dagoen araudian erregulatutako moduan.

16. artikulua. *Defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialen inportazioa eta esportazioa Erresuma Batuarekin.*

1. Defentsarako materialak Erresuma Batura esportatzeko edo handik inportatzeko indarrean dauden baimenek iraungitze-datara arte balioko dute, baldin eta Defentsarako materialaren, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktuen eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko Erregelamenduaren 2. artikulua babesean eman badira (abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori). Dagokien baimena eman beharko da 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen baimendu ez diren esportazio eta inportazioetarako, hirugarren herrialdeekin defentsarako materialaren kanpo-merkataritzarako baimenei buruz aurreikusitakoaren arabera. Baimenak erregelamendu horren 20. artikulua 2. apartatua deskribatzen den edozein motatakoak izan daitezke, g) epigrafean aurreikusitako modalitatekoak izan ezik (hau da, defentsarako materialaren erkidego barruko transferentzietarako lizentzia orokorraren modalitatekoak izan ezik).

2. Erresuma Baturako erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak erkidego barruan transferitzeko baimenek iraungitze-datara arte balioko dute, Europar Batasunaren eremu osoan, baldin eta Kontseiluaren maiatzaren 5eko 428/2009 (EE) Erregelamenduaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera eman badira eta indarrean badaude (Kontseiluaren maiatzaren 5eko 428/2009 (EE) Erregelamenduak erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko erkidegoko araubidea ezartzen du). 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, erregelamendu horren IV. eranskinean jasotako produktuen esportazioak hurrengo apartatua jasotakoari jarraituz baimenduko dira.

3. 428/2009 (EE) Erregelamenduaren I. eranskinean jasotako erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak Erresuma Batura esportatzeko, dagokion baimena beharko da baldin eta 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenago baimendu ez badira, hirugarren herrialdeekin erabilera bikoitzeko produktuen eta teknologien kanpo-merkataritzako baimenei buruz aurreikusitakoaren arabera. Defentsarako materialen, bestelako materialen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko Erregelamenduaren 20. artikuluan deskribatutako edozein motatakoak izan ahalko dira baimenak.

4. EU001 baimen orokorrean jasotako erabilera bikoitzeko produktu eta teknologia guztiak baimen horren babesean esportatu ahal izango dira behin betiko Erresuma Batura 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera. Horretarako, aldezturik, Defentsako eta Erabilera Bikoitzeko Materialen Kanpo Merkataritzako Operadoreen Erregistro Berezian (REOCE) inskribatu beharko da operadorea, eta Defentsako eta Erabilera Bikoitzeko Materialen Nazioarteko Merkataritzako Zuzendariordetza Nagusiari jakinarazi beharko zaio erregistro horretan inskribatzeko asmoa.

5. Erresuma Batutik erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak inportatzeko, dagokion baimena beharko da Defentsarako materialen, bestelako materialen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko Erregelamenduaren III.3 eranskinean jasotako produktu guztietarako.

17. artikulua. *Arma, lehergai, piroteknia-gai eta kartutxoaren gaineko baimenak.*

1. 2021eko urtarrilaren 1aren aurretik arma, lehergai, piroteknia-gai eta kartutxoaren transferentzietarako emandako baimenek eta aurretiazko adostasunek ezarri zaien epea amaitzen den egunera arte balioko dute.

2. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, transferentzietarako baimenak eta aurretiazko adostasunak emateari utziko zaio, eta salgaien inportaziorako, joan-etorrietarako eta esportaziorako araubide orokorra aplikatuko da.

3. Su-armen Europako txartelek 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ez dute balioko Espainian, Erresuma Batuak emandakoak badira. Espainiak lehenago emandakoek data horretatik aurrera ez dute balioko Erresuma Batuan, estatu horrek kontrakorik xedatu ezean.

4. Artikulu honetan aurreikusitakoa aplikatzeko, britainiar agintari eskudunek ere pareko tratamendua eman beharko dute, errege-dekretu honen 3.1 artikuluan ezarritako moduan.

5. Lehergai edo piroteknia-gairen baten bat-etortzea ebaluatzeko prozeduran Erresuma Batuko erakunde jakinaraziren batek parte hartu badu, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ezingo da merkaturatu produktu hori.

18. artikulua. *Hondakinak lekuz aldatzeko baimenak.*

Erresuma Batuan jatorria edo helmuga duten hondakinak lekualdatzeko baimenek, baldin eta autonomia-erkidegoek 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen eman badituzte, ezarri zaien epea amaitu arte balioko dute.

## V. KAPITULUA

### Aireportuetako zerbitzuak

19. artikulua. *Erresuma Batuko aireportu batera joateko hegazkineratutako bidaiarien irteeragatiko prestazio publikoak.*

Aireko Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 78. artikuluan eta 89.1.a) 1.5ean aurreikusitako ondorioetarako, 2021eko urtarrilaren 1etik, berdin-berdinak izango dira Erresuma Batuko nazioarteko helmugari aplikatu beharreko zenbatekoak eta Europako Esparru Ekonomikoko helmugan taldeari aplikatutakoak, harik eta bestela ezarri arte Hazkuntza, Lehiakortasuna eta Efizientzia sustatzeko Urgentziazko Neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legearen 34. artikuluan aurreikusitako tarifak eguneratzeko urteko prozesuan.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Lanpostu gehiago baimentzea ICEX España Exportación e Inversiones EPE MPri*

ICEX España Exportación e Inversiones EPE MPk lan-kontratu mugagabeko zortzi langile kontratatu ahalko ditu, teknikarien lanbide-taldekoak, aldez aurretik Ogasun Ministerioak eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak baimena emanda eta Aurrekontu eta Gastuetako eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko estatu-idazkaritzen bitartez. Haren giza baliabideen berrezarpen-tasako plazei gehitu beharrekoak izango dira zortzi plaza horiek.

Bigarren xedapen gehigarria. *Lanpostu gehiago baimentzea portuetako agintariei.*

Portuetako Agintaritzek 56 plazako eskaintza izango dute 2021. urtean, Enplegu Publikoaren Eskaintzari buruzko Errege Dekretuan baimendutakoez gain, eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera egin ahal izango da haietarako deialdia.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Tituluak eta ikasketak homologatzea, baliokide deklaratzeta eta baliozkotzea.*

1. Erresuma Batuko unibertsitateetatik eta goi-mailako hezkuntzako beste zentro eta erakundeetatik datozen tituluak homologatzeko eta baliokide deklaratzeko eskaeren dokumentuek ez dute Hagako Hitzarmeneko apostillarik eduki beharko, baldin eta eskaera 2021eko uztailaren 1a baino lehenago aurkeztu bazaie Espainiako agintariei, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan aurreikusitako prozeduraren babesean (dekretu horrek unibertsitateko titulazioekin eta ikasketak-maila ofizialarekin homologatzeko eta haren baliokidetzat jotzeko eta ikasketak baliozkotzeko baldintzak eta prozedura ezartzen ditu atzerrian egindako goi-mailako ikasketei dagokienez, bai eta kualifikazioen Espainiako esparruko mailen baliokide direnak zehazteko prozedura ere arkitekto, ingeniari,

lizentziadun, arkitekto tekniko, ingeniari tekniko eta diplomadunen goi-mailako titulu ofizialei dagokienez).

2. Erresuma Batuko hezkuntza-sistemako unibertsitatez kanpoko titulu eta ikasketak homologatzeko eta baliozkotzeko eskaeren dokumentuek ere ez dute Hagako Hitzarmenaren apostillarik eduki beharko, baldin eta eskaera 2021eko uztailaren 1a baino lehenago aurkeztu bazaie Espainiako agintariei, Unibertsitatez kanpoko atzerriko titulu eta ikasketak homologatzeari eta baliozkotzeari buruzko urtarrilaren 29ko 104/1988 Errege Dekretuan aurreikusitako prozeduraren babesean.

Laugarren xedapen gehigarria. *Aurreikusitako neurriak gauzatzeko kontratazio publikoa.*

Sektore publikoaren esparruan kontraturen bat egin beharra badago errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak gauzatzeko edo egoera Erresuma Batua Europar Batasunetik irtetearen ondorioei egokitzeko, eta etorkizuneko harremanetarako akordiorik egin ez bada, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoa aplikatu ahal izango da, artikulua horietan bertan ezarritako eran (azaroaren 8ko 9/2017 Legea sektore publikoko kontratuen legea da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora).

Bosgarren xedapen gehigarria. *Aurrekontu-kredituak.*

Errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera finantzatzeko dira, aurrekontuko baliabide-mugak gainditu gabe.

Seigarren xedapen gehigarria. *2020rako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata finkatzen duen otsailaren 4ko 231/2020 Errege Dekretuaren indarraldia luzatzea.*

Luzatu egiten da 2020rako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata finkatzen duen otsailaren 4ko 231/2020 Errege Dekretuaren indarraldia, harik eta elkarrizketa sozialaren esparruan 2021. urterako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatuko duen errege-dekretua onartu arte, hartan ezarritako baldintzetan, eta Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak 27. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorri (testu bategin hori urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Xedapen iragankor bakarra. *Langabezia-prestazioaren onuradunak.*

Espainiako langabezia-prestazioen onuradunek, baldin eta 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenago eskubidea esportatzeko baimena badute Erresuma Batuan edo Gibraltarren hobekuntza profesionaleko edo enplegua bilatzeko ekintzetarako, prestazio horiek jasotzen jarraitu ahal izango dute, harik eta esportazioa baimendu zitzaien hasierako hiru hilabeteko epea amaitu arte, baldin eta Britainia Handiko Enplegu Zerbitzuek haien inskripzioa mantentzea bermatzen badute hasieran baimendutako eskubidea amaitu arte. Kasu horietan, ez da aurreikusten epea luzatzea.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauak indargabetzea.*

1. Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak.

2. Espresuki indargabetuta geratzen da 5/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Kontingentzia-neurriak hartzen dituena Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua Europar Batasunaren Tratatuak 50. artikuluan jasotako akordioa lortu gabe ateratzen bada ere Europar Batasunetik.

Azken xedapenetako lehena. *Aire Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/1960 Legea aldatzea.*

Aldaketa hauek egiten dira Aire Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/1960 Legean:

Bat. Aldatu egiten da berrogeita hemeretzigarren artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«Berrogeita hemeretzigarren artikulua.

Aireontziko komandantea agintean egoteko eta hegaldia segurtasunez egiteko operadoreak izendatutako pertsona da».

Bi. Aldatu egiten da laurogeita zortzigarren artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«Laurogeita zortzigarren artikulua.

Nazioarteko trafikorako Espainiako aireko zerbitzu erregularrak estatu interesdunekin egindako hitzarmenen bidez ezarriko dira. Atzerriko enpresei trafiko hori egiteko baimenak edo emakidak, oro har, elkarrekikotasun-printzipioan oinarrituta emango zaizkie, zerbitzu nazionaleri kalterik egin gabe.

Trafiko ez-erregularreko atzerriko aireontziek baimena beharko dute aireko zerbitzuak egiteko».

Azken xedapenetako bigarrena. *Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina (irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) aldatzea.*

Aldatu egiten da Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia; zehazki, II. eranskineko 22. definizioa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«22. Itsas autobideen itsas zerbitzua: Espainiako portuak Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako eta Erresuma Batuko portuekin lotzen dituen itsasoko zerbitzu erregularra, maiztasun eta erregulartasun handikoa, eta errepidez zirkulatzeko egokiak diren garraio-elementuetan garraiatutako salgaien trafikoari lehentasunez erantzutera bideratua. Portu horiek, gainera, Europa barneko Garraio Sareko Itsas Autobideetako kide izan beharko dute (Erresuma Batuko portuak izan ezik), bat etorriaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 11ko 1315/2013 (EB) Erregelamendurekin (Europa barneko garraio-sarea garatzeko jarraibideei buruzkoa) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 11ko 1316/2013 (EB) Erregelamendurekin ("Conectar Europa" mekanismoa sortzen duena)».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Erregelamenduzko xedapenak aldatzea.*

Errege lege-dekretu honek aldatzen dituen erregelamenduzko xedapenak gerora ere aldatu ahal izango dira erregelamendu-mailako xedapenen bitartez.

Azken xedapenetako laugarrena. *Eskumen-tituluak.*

Errege lege-dekretu hau Estatuaren eskumen hauen babesean ematen da:

4. eta 5. artikuluen eta hirugarren xedapen gehigarriaren aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149. artikuluen 1. apartatuaren 30., 7. eta 18. zenbakien babesean eman dira; horiek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen diote ikasketa- eta lanbide-tituluak lortzeko, emateko eta homologatzeko baldintzen erregulazioaren arloan, lan-arloko



legeriaren arloan eta administrazio publikoetako funtzionarioen estatutu-araubidearen arloan, hurrenez hurren.

6. eta 7. artikuluen aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149.1.7 artikulua babesean eman dira (artikulu horrek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen dio lan-legeriaren arloan), 6. artikulua 3., 4. eta 5. apartatuen aurreikuspenak izan ezik, horiek 149.1.2 artikulua babesean eman baitira (artikulu horrek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen dio nazionalitatearen, immigrazioaren, emigrazioaren eta atzerriartasunaren arloan).

II. kapituluko 8. artikulua aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuaren 7. eta 15. zenbakien babesean eman dira; horiek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen diote lan-arloko legeriaren arloan eta zientzia eta teknika mailako ikerkuntza bultzatzearen eta orokorki koordinatzearen arloan, hurrenez hurren.

9. artikulua aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149.1.17 artikulua babesean eman dira; artikulu horrek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen dio Gizarte Segurantzaren oinarriko legegintzaren eta ekonomia-araubidearen arloan.

10. artikulua aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149.1.7 artikulua babesean eman dira; artikulu horrek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen dio lan-legeriaren arloan.

11. artikulua aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149.1.16 artikulua babesean eman dira; artikulu horrek Estatuari eskumena esleitzen dio osasun-arloaren oinarri eta koordinazio orokorraren gainean.

12. artikulua aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149.1.30 artikulua babesean eman dira; artikulu horrek Estatuari eskumena esleitzen dio Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarriko arauak erregulatzearen gainean, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

13. artikulua aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuaren 11. eta 13. zenbakien babesean eman dira; horiek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen diote kredituaren, bankuen eta aseguruaren antolaketaren oinarriaren arloan eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriaren eta haren koordinazioaren arloan, hurrenez hurren.

14. artikulua eta laugarren xedapen gehigarriaren aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babesean eman dira; artikulu horrek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen dio Administrazioaren kontratu eta emakidei buruzko oinarriko legeriaren arloan.

15. artikulua aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149.1.21 artikulua babesean eman dira; artikulu horrek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen dio ibilgailu motordunen trafikoaren eta zirkulazioaren arloan.

16. artikulua aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuaren 4. eta 10. zenbakien babesean eman dira; haiek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen diote defentsaren eta indar armatuen arloan eta kanpo-merkataritzaren arloan, hurrenez hurren.

17. artikulua aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua 1. apartatuaren 26. eta 29. zenbakien babesean eman dira; horiek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen diote arma eta lehergaiak ekoizteko, salerosteko, edukitzeko eta erabiltzeko araubidearen arloan eta segurtasun publikoaren arloan, hurrenez hurren.

18. artikulua aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149.1.23 artikulua babesean eman dira; artikulu horrek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen dio ingurumena babesteari buruzko oinarriko legeriaren arloan.

19. artikulua eta azken xedapenetako lehenengoan eta bigarrenean jasotako aurreikuspenak 149.1.20 artikulua babesean eman dira; artikulu horrek Estatuari eskumen eskusiboak esleitzen dizkio arlo hauetan: merkataritzako nabigazioa, eta ontziak banderapean jartzea; interes orokorreko portuak; interes orokorreko aireportuak; aireko espazioaren kontrola, eta aireko zirkulazioa eta garraioa.

Lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrien aurreikuspenak Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babesean eman dira; artikulu horrek Estatuari eskumen eskusiboa ematen dio

administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen oinarrien arloan.

Seigarren xedapen gehigarriaren aurreikuspenak Espainiako Konstituzioaren 149.1.7 artikulua babesean eman dira; artikulua horrek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen dio lan-legeriaren arloan.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Erregelamendu bidezko garapena.*

1. Gobernuari eta ministerio-departamentu guztietako titularrei, bakoitzari bere eskumen-eremuan, ahalmena ematen zaie errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

2. Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 27. artikulua ondoretarako, errege lege-dekretu hau garatzeko xedapen orokorren proiektuak presaz izapidetuko dira beti, Ministro Kontseiluak erabaki bidez presa deklaratu beharrik izan gabe. Hala ere, proposamena egiten duen ministerio-departamentuak izapideen hasieraren berri eman beharko du Ministro Kontseiluaren hurrengo bileran. Jakitun dela adierazteko erabakian, Ministro Kontseiluak epea ezarriko du Estatu Kontseiluak irizpena eman dezan, irizpena nahitaezkoa izanez gero. Nahitaezkoak diren gainerako irizpenak ere presaz eman beharko dituzte kontsulta-organoek, bakoitzak araututa daukan presako prozedura erabiliz.

Azken xedapenetako seigarrena. *Indarrean jartzea eta indarraldia.*

1. Errege lege-dekretu hau 2021eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, xedapen honen 2. apartatuan xedatutakoa izan ezik.

2. 4., 9. eta 11. artikulua eta 14. artikulua 2. apartatua ez dira indarrean jarriko, baldin eta 2021eko urtarrilaren 1ean Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren artean etorkizuneko harremanetarako akordio bat indarrean jarri bada eta horretan espresuki jasota badaude artikulua horietan ezarritako aurreikuspenak. Hala ere, akordio hori behin-behinean aplikatzeko bada eta indarraldia galtzen badu alderdietako batek berretsi ez duelako, akordioaren indarraldia amaitzen den egunean jarriko dira indarrean 4., 9., 11. artikulua eta 14. artikulua 2. apartatua.

3. 4., 9. eta 11. artikulua eta 14. artikulua 2. apartatua indargabetuko dira, baldin eta 2021eko urtarrilaren 1aren ondorengo edozein unetan indarrean jartzen bada Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren artean etorkizuneko harremanetarako akordio bat eta horretan espresuki jasota badaude artikulua horietan ezarritako aurreikuspenak.

4. Gibraltari ez zaio aplikatuko azken xedapen honen 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoa.

Madriren, 2020ko abenduaren 29an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN